

74R

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
4n. ZENBAKIA

ZEMENDIA
— 1977 —



ARALAR:

EUSKALDUNAK

ERRIGINTZAN

*Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.*

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskatzen dauan laguntza-moltzo osotua goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.


Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA

Geroa, bertan daukagu.



E U Z K A D I ' R E N J A K I N T Z A

JAKINTZA ABERATSA

Beti entzun dogu, eta sinistu be egiten dogu, Euzkadi jakintza-gaietan oso aberatsa dala.

Erria txikia izanik, eta nondik sortu diran be igarri eziñik, gure eskuetan aberastasun aundiak daukaguz: Izkuntzan, euskalkietan, kondairan, lutelestian, eder-lanetan, eresean, edo musikan, dantzetan, jolasetan, ipuñetan, etxegintzan, lan eta lanabesetan, sal-erosteko artu-emonetan, erri-jakiturian, erlejiño-gaietan, landara ta abere-gaietan, politikan, gizarte-arazoetan, idazti zarretan eta olako askotan.

ERRITARRAK TXIRO

Ori orrelan izanda, negargarria da gure Erriaren egoera. Erritarrik geienak analfabetoak, abedetu bakoak, doguz. Oso gitxi dira gure artean, Erriaren kondaira, azal-azaletik baiño ez ba'da be, ezagutzen dabenak.

Geure lurra bera zelakoa dan eta zenbat zatik osotzen daben, zenbatek dakie? Landu bako Erria gara ba, zori txarrez. Eta ori gauza negargarria da.

Txarrago dana oraindiño: Gure erririk geienak ez dauka ezelako ardurarik erriko jakintzea beraganatzeko. Ez dabe irakurten. Ez dabe idazten. Iñorenganatuta dagoz eta guzti ori erderaz egiten dabe.

Ezaugarri txarrak dira oneik Erri batengan ! Orrelan nora doa gure Erria?

ZERGAITIK ORI?

Egoera larri orren oiñarria zein dan jakin gura ba'dogu, ez da gauza gaitxa. Jakintzak aurrerapenik aundienak egin dituan aldian, iñoren agintaritzapean izan gara eta gagoz gaur be.

Erbesteko agintari oneik lan eta lan ekin dabe gure jakintza au lurperatzeko. Orretan errurik geien izan dabenak, eskolak izan dira, Isabel II'ak maixuen «eskalafoi» legea Euzkadi'n sartu eban ezker.

Aspaldion asi gara ikastolak ipinten. Lan txalogarria! Baiña oso laburra erri osoa jakintzara eroateko. Erdi-maillarantza ta Goi-Mailla edo Unibertsitaterantza be egin dira ekiñaldiak, guztiz txalogarriak!, baiña ain urrin elburua ikusten dogula, ezin artu poz aundirik !

URTENBIDEA

Zein urtenbidea, urtebiderik ba'dago, egoera larri onetatik urteteko?

Buru-jabetza edo autonomia ikusten dogu urtenbide bakar lez. Gure errietako eskolak ikastola biurtu, gure «Instituto»ak euskal-ikastetxe egin eta gure Unibertsitatea, euskal-Unibertsitate.

Urtenbide gaixea, baiña egin leikena.

«ZER» LANGILLE

Mailla orretara eltzeko lan egin bearko dogu, batez politika-arazoan eta daukaguzan irakaste-erakundetxuak indartzen. Politikan, buru-jabetza lortu bear dogu ainbat lasterren. Il edo biziko ekintzea dogu ori.

Ikastolak, ikastetxeak eta Goi-Maillako irakaste-lanak indartu bearko doguz.

Baiña gure erri zearen barruan, ikastolara edo Ikastetxera joango ez diran erritarren artean be lan egin bear dogu. Eta orixe bai da dala ZER egiten dogunok gogoz artu gura geunken lana. Orretarako bai eskatzen dogula laguntasuna!

Euskera errezean, gai irakurte-errezak eta egarria emoteko lakoak erabilli gura doguz. Erri-jakintzaren ardurarik ez daukenak ardaratu gura doguz eta erri-kontzientzia motelduta daukenak, bildur-girorik ezarri barik, arduratu.

ORRETARAKO

Orretarako alkartu gura dogu, eta ondo alkartu be EUSKERAZALEAKaz, gaurko arazoak, ipuiñak, barri azalduak, aberri-arazoak, bertoslariak, baserritarak, arrantzaleak, idazleak, gizandiak, liburuak agertu ta aztertu... Batez be erri zearen irakur-gurea sortu edo indartu.

Ez da gauza aundirik, egiteko dagon lan ikaragarrian, guk egin geinkena, baiña garautegirako geure garautxuak ekarriko doguz.

GAURKO ARAZOAK

BARDITASUNA TA AGINTARITZEA

GIZA-NORTASUNA ZAINDU TA LATERRI-
ESKUBIDEAK MUGATU
GIZONEN BARDITASUNA BABESTU
XVIII GIZALDIAN, LEGE-GIZON ETA GO-
GOETARIEN LANA
LATERRIAREN ALMENAK ERRITIK DATOZ
(U. S. A.)
ONIAREN IRAKATZIA

Gaurko gizonentzat bear-bearrekoa da gizonen zaintzea.

Eta gai oneri buruz ekitea ez da alperreko ta ardurabako gauzea.

Eskubide-autorpenak argi agertu arren be, Laterriak ez dau beti zaintzen nortasun ori, Gizonaren nortasunari dagokiozan eskubideetan egu sartzen da.

Gaur egun Laterriak almen aundia dauko eta ez dogu arritu bear bere buruzagiak eta zuzendariak danean jabe lez egin eta agindu-gurean ikusten doguzanean.

Laterriaren griña oneri mugak ipiñi bear jakoz ba, iñoz aitzu barik.

Erri-gizonen eskubideetan sartzea, antxinako gaitxa da, baiña gaur egun askoz kaltegarriagoa, gizona Laterriaren aurrean babes eta gordeleku barik dago ta.

* * *

Eskubideen Autorpenaren zeregin bat auxe izango da ba: Laterritik edo beste edozein lagune-gandik erri-gizonari datorkozan arriskuak urrindu.

Orretarako mugak bear dira eta izan leitekez legediak, baiña legedi orreik bete-azo egin bear dira Laterri alguztidun orrek erria ez dagian zapaldu ta artegatu.

Legedi orreikaz mundu guztian eta sailla guztietan bardintasuna lortu bear da: ondasunen jabetasunean, erlejiñoan, enden artean, alkarren eskubideak zaintzean... Eta barditasun bizirako

babesak, lege-bideak, eskubideak berezko zuzen bideak eta olakoak e2.arri ta beteazo bear ditu.

XVIII gizaldian egin zan lenengo Giza-Eskubideen Autorpena.

Lege-gizonen eta gogoetarien lana izan zan.

Izatezko legea, edozein gizonek gogoratu leikena, lenengo gaia ta aldatu-eziña dala gogoratu eben.

Baiña ori guztiak eta erri guztietan onartu bearrekoa zan. Orretarako adimen argi eta burubide zuzenaz lan egin bear.

* * *

Aldi aretako gogoeta nabarmen orren onura ziran eta, errien naimen lez agertu ziran urrengo autorpenak eta erri jabetasuna izendatzen zan, agintaritzari indarra emoteko bide lez.

Ipar-Ameriketako Askatasunaren legeak diño : Gizonak irasi dabez gobernuak eta gobernuen zeregiña da gizonak zuzentzea, artu dituen almenak bide dirala.

* * *

ONU'k be ontzat artzen dau Erri-naimenaren gogorapen au esanez: Erriaren guraria da, agintarien almenaren oiñarri. GURARI ori noizean bein egingo diran auteskunde garbi eta tolesbakoen bidez agertuko da.

LETONA'k

LEGAZPI

Euskaldun asko izan dira mundu zabalean ospetsuak.

Gure enai ospetsu oneik munduko gizonai emon dautsen laguntza ez ete da izan munduko lagunak emon dauskuen laguntzaren iturri?

GUDARI TA GUDALBURU ASKO IZAN DIRA euskaldunak, erromatarren alditik asita, baiña beti, eretxi zuzenez edo okerren, laguntzen; ez sekula be iñoren lurak geuganatzeko ta geure agintea beste aberri batzun gainean jarteko.

Gizandi oneik gure erria bertan bera itzi dabela esan lei, iñoren arazoetan sartzeko, baiña aldi ba-koitxean aldikoa eta beti be geureak doguz.

Ezagutu dagigun gaur gure Legazki ospetsua.

URDANETAGAZ

Legazpi egin eban Urdaneta'k bere eguzki ugarteetarako txango edo ibillaldi aren buru.

Itzaltasun aundiko gizona zan Legazpi, asko ikasi ta ikusikoa, agintari prestu ta gudari trebea, eta oso zentzu on eta lagunarte aundiko gizona.

Erregeak itxasketa orretarako dirurik ez eukan eta berenetik ordaindu eban Legazpi'k txango luze aretako dirutza guztia.

IXILPEKO AGIRI BAT

Ezkuuzko agiri bat emon eutson Legazpi'ri Mexiko'ko agintariak, itxasoratu ta andik bost egun baiño lenago ez zabaltzeko agindu zorrotzarekin.

Bost egun orreik igaro ta gero, bere ondora deitu eutsen Legazpi'k ibillaldiko agintariak, eta agiri berezi ori euren aurrean irakurri eban.

Urdaneta'ren asmoak ezetsi, eta beste asmo barri au ezarri eutsen erregearen ordezkariak: Filipineta'ra joateko eta andik ez barrero etorteko ango ugarte guztiak erregearentzat ibazi arte.

JANGAIK

Ori entzun ebeneko, asarre bizian jarri ziran guztiak.

Legazpi zintzoak, naigabeturik baiña zorrotz, esan eutsen: Agindua agindu, jaunak! Guztiok aurrera.

Filipineta'ko ugarteetan egozan andik iru illebetera; eta ango ertzetara jatsi ziran janaren billa. Bertakoak iges egin eben basoan zear.

Alako baten, jangaiez beteriko itzas-ontzi aundi bat ikusi eben.

Legazpi'k txalupa aundi bat ogei gizonegaz jan eske bialdu eban lenago, baiña basatiak gezika artu eta guztiak zaurituta itzi zituen.

Alan eta guztiz be, Legazpi'ke zituaz zigortu eta jangaian ordain zeatza emon eutsen eta basatiak Legazpi'gaz geratu ziran esker onez.

ESKER ONA TA BAKEA

Zorioneko esker ona!

Ugarteetako basatiak ori ikusi ebenean. Zikatuna erregea Legazpi'rengana etorri zan onegaz itun bat egiteko.

Bakoitxak bere bular-gaiñetik odola atera eta ardaoz beteriko otzi batera ixuri eben eta biak edan eben itun-edaria.

Adiskide-itun orren araura, alkar lagun biurtu ziran andik aurrera bertakoak eta etorriak.

ZAZPI MILLA UGARTE

Andik laster, Legazpi'k bere itxas-ontzitik aundiena ta bere gudaririk aundienak Urdaneta'ri emon eutsozan eta Filipineta'tik Mexiko'ra ostera barria gertatu eutson.

Urdaneta Mexiko'rantz joiala Legazpi'k Filipineta'ko ugarte guztiak adiskidetasunez beragatatu zituan.

Andik urte batzutara, España'ko Felipe bigarrena Filipineta'ko zazpi milla ugarteetan jauna zan, odolik ixuri barik eta dirurik eralgi barik.

URKIOLA'k

ABERRIA

EUSKAL-SENA

EKANDUAK

Euskalerrriak betidanik bere oitura ta ekandu zarrak izan ditu.

Bertako baso, mendi ta oianetan aurkitu oi ziran areitz eta pagoen antzekoak ziranak.

Sendo ta errotsuak, benetan.

Ez da ez erreza izan menderik mende oitura zaar oneik, euskal-nortasuna, zaindu ta gordetzea.

Berein gizakunde ezberdiñak igaro dira gure ezker-eskuetatik eta bein eta geiagotan gure barne-muñak be ikutu ta eragin bizienagaz irabiotu ditue.

ARERIO ZARRAK

Or dozuez, esate baterako, Kartago'ko Anibal gudalburu ospetsua ta bere gudarozteak, euskaldunakaz be orniduak batzutan.

Or erromatarrak, or godotarrak, or...

Batzungandik onurak geureganatu genduzan, besteengandik ostera, ta ugariago kalte izugarriak.

Ala ta be, iraudu dogu, tente gabiltz; an, or, emen, zulo ta zirriki-tuak itxi ba'gaituez be.

* * *

ORAINZUKOAK

Geroago prantzesak agertu jakuzan.

Bonapartetarrak Europa osoa aurrean erabili ta astindu eben.

Eta ez gudaroztean bakarrik, baita be, ta txarrago zana, euren asmo barri matxin-zaleak gaztedian batez be leun-leun sartuerazoz, zati aundi baten pentzakerera barri-zale oneik erein ta zabalduaz, gaztedia ezeze beste gizarte-arlo nabarmenak, garrantzi aundikoak be zorabiauta itxi zituen.

AZI TXARRA

Euskaldunentzat aia galgarria izango zan azia botata egoan.

Euskal-iparraldeko iru erkiak euren buru-jabetasuna orduan galdu eben.

Gero, karlisten guda anai-erailleak.

Ta guda-ondoren, betikoak: nas-pilkeria, lizunkeria, oituren nabarmenkeria, kanpotarren sartze neurribakoa... ta Euzkadi egoaldeko buru jabetasuna be galtzea.

*

GAUR

Erasoaldi ta kinka larri oneik joan ziran.

Aldiak aldatu dira ta gaur eguneko bizimoduak begitazteko ordua eldu jaku: gaurkotasanaz, oraingoaz, konturatu bearra dogu.



Asko be asko poztu nintzan gure illeroko ZER onen lenengo zenbakian, azal aurrean, portadan, ikusi nebanean atsoz bat bere aldamenean, alboan, mutil koskortzo bat, lengo ta geroko baten denporak adieraziaz.

URDURI

Igaro jakuzan lengo areik; asieran sendoak, basoko areitzak Ta-koak ziranak, ta azkenean negar-garriak gure buru jabetasuna galduaz, lengo sondotasunaren ordez,

gaur eguneko piñudiak bezela, «gero» ezjakiñaren ezaugarri zimelak zirudienak.

Bai. Areitz eta pagoen ordez, Euskalerrria lerrondoaz, piñuz, berterik dogu.

Baiña geroa irabazi bear dogu.

NOTIÑAK OBETU

Geroa guk, oraingoak betetu bear dogu.

Zugaitzak ezin geinkez aldatu, joan ziran urte ta gizaldien ezaugarria diranez.

Baiña notiñak, pertsonak, aldatu ta obetu geinkez.

Gaur egun, arin baten bizi gara, piñuak ebago oi diran lez, eta dana gure ingurumarian urduritsu agertu oi jaku.

Ori ta be, len aitaturiko illeroko azal-aurreko mutiltxo orrek asko esan gura dausku.

Bera lez, millaka dira, euren alde zer egin geinken itzaroten dagozanak.

Euren geroa gure eskuetan da roagu.

Orain guk egin dagigunaz eurak baliatuko dira ezberrik gabe.

* * *

GEROA, GURE SEME ALABENA

Eta ori arlo guztietan: ikastolan, erlejiñoan, gurasoen ardura-penenan batetik eta eurakanango ta gizadi osoaren begirunean erakutsi oi dautsaguzan eredu bizietan bestetik.

Geroa gure seme alabena da.

Gero pozgarria, itxaropentsua, lagun artekoa, ez alkar joka ta bekaizkeriz eroatekoa.

«Oraingoak» zubiak gara. «Lengo ta gorokoen» zubiak. Zubipetik uraldiak igaro arren, izan gaitez, irmo ta zintzo jokaturik, zubi sendo ta tinkoak.

Gure ondorengoak ta Euzkadi gure aberriak eskertuko dauskue. Azi on batek igali ugariak dakar.

ARREGI'tar Josu'k

JOXE MIGEL BARANDIARAN NOR DOGUN

(Liburu barria)

BARANDIARAN, AIZTU-EZIÑA

Joxe Migel Barandiaran euskal-kulturan nor dogun jakiteko ez da neke andirik bear.

Euskal-erriaren aztarrenak billatzera eta ezaguerazoten egin dituen lanen barri liburu eder mamintsuak emoten dauksue, abade langille onen eskutik urtenikoak eurak.

Euskalerrriak bere buruari lotsarik dauksan bitartean eta biotzean esker on apurrik gordetan badau, liburu argitsu orreik ez ditu bazterreratu ta aitzu bear.

Mundu jakinzale guztiauren aurrean burua gora eta lotsatu barik erakustekoak dira.

Euskaldunok gogoan izan bear. dogu Barandiaran onekin dogun zorra, eta ez dogu aitzu bear. ez beronen lana, ez mesede esker garri ori ekarri dauksun eskua bera, Barandiaran jauna bera. Ereduek ederra gizon argi onen bizitza...

LIBURU ARGIBAT

Ain zuzen, bizitza onen barri emotera datorkigu gaur liburu irakurgarri bat: maitasunez idatzitako, zaeztasun osoz eta argibide jakingarriz ornidutako liburu lodi mardula.

Jakituna ez da berez sortzen ez beingoan egiten.

Jakituna ez da zaletasun utsaren semea, eta bere bidea ez dau erreztasun-bidea, ez eragozpenik bakoa.

Liburu onetan daukagu zelangoa izan dan Barandiaran jaunaren bidea, euskaldun jakitun eta abade baten bidea, Euskalerrriak izan dauan serbitzaririk onen baten bidea, bide gogorra eta latza bein baiño sarriago, baiña beti atzerarik bakoa, beti gorakoa...

JAKITUN ETA EUSKALDUN

Euskaldun izatea be neketsua, aldatz-gorako gauzea ete da?

Ez leuke izan bear, baiña giro batzuetan alan izan da.

Amaika euskaldunek, ikasketa nausien bideari eldu dautsoenean, ez dabe jakin izan euskaldun irauten; euren euskalduntasuna itota gelditu da jakintza-itxurazko giro lanbrotsu baten sartu diraneko. Euren burua edo euren izatea aiztuterañño eldu izan dira.

Barandiaran jauna ez da izan olakoen artekoa.

Gazte-gazterik sartu jakon gogoan, eta sakon sartu be, antziñako esaera au: Ezagutu zeure burua. Barandiaran jaunarentzat esaera zur orrek zera esan nai eban: Ezagutu nor zarean, nondik zatozen, ezagutu zeure

jatorria, zeure erria, zeure inguruko bizitzaren eta gizonen nondik norakoa.

Nekeak neke eta entzun-bearrak entzun (askorentzat zorakeria ei zan artu eban bidea), Ataungo seme leial onek, artutako bidetik zintzo eta kementsu aurrera egiten jakin dau bizi guztian zear...

ABADE TA ERRIGILLE

Abade-bizitza nekezkoa dala? Gure egunotan ikusten danetik, alan dirudi.

Eta batek baiño geiago uste dau, abadetzer agur eginda, garbatuta, Euskalerrriaren serbitzari ohea izango dala, euskal-kultura-sailletan lanik geiago egiteko aukera izango daua, gero uste orrek ustel urtengo ba dautse be.

Noiz agertuko ete da beste euskaldunik, Azkuek eta Barandiaran jaunek euren abadetzeratik egin daben aiña Euskalerrriaren eta euskalduntasunaren alde egingo dauanik?...

BIZITZA LATZA

Jakitunaren bidea aldatz-gorakoa dala, ez dala erreza?

Barandiaran jaunaren bizitza au irakurri dagianak ez dau ukatuko, ez dau ezetzik esango.

Amaika izerdi-ixurtze, amaika gose-egarri, otz bero, bustialdi ikusi bear izan dau an eta emen, euskal-mendietan, euskal-aztamen billa, euskal-esaera, siñiskera eta abar batzen! Zorionez, alan bear eta, Jaungoikoak osasun on baten jabe egin dauksu bera eta burua argi eta gorputza zal eta giartsu eldu da bere adin betera, larogetamargarren urtera urrerateraiño.

Urte askotako bizia izango al dau oraindik!...

EROSI ETA IRAKURRI

Irakurle: emen dozu edo nonai erosteko aukeran dauku liburu barri au: Jose Miguel de Barandiaran, Patriarca de la Cultura Vasca (Donosti-Aurrezki-Kutxa).

Beste Barandiaran batek (Luis Barandiaran Irizarrek) egiña da.

Emen dozu Joxe Migel Barandiaran bere neurri betean agertuta: euskaldun, abade, jakitun, eta ez neurri txikienean, gizon apal, atsegin eta serbitzari. Euskal-kulturaren serbitzari gorenetakoa.

NORTANI

EUSKARA

Lengo baten 50 urtedun inguruko andra bat urreratu jatan bere ama izan zanaren goralmenak egitera.

Berak: nire ama euskaldun santa aundi bat zan, esan eustan erderaz.

Nik orduan euskeraz egin neban, ta, berak:

Nik ez dakit euskerarik, nire amak ez eustan irakatsi ta gañera berak esaten eban euskereak ezertarako be ez dauela balio.

Nik orduan luzaroko jardunaldi bat egin neban euskerearen alde.

«Euskerea ezertarako be ez dala esaten dauan euskalduna lilliratu ta zorabiotuta dago.

Euskerea euskaldunen artean ibilteko gauzarik egokiena da ta, ezbalitza bere, geure geurea dalako, maitagarria ta txukun txukuna da.

¡Badakizu euskereagaz zer jasodan.

Gizaldietan oinperatuta egonda.

Ez dogu izan ez ikastolarik, ez izparringirik ta, gerotxoago, ez irratirik, ez ta telebistarik.

Aundikiak geien baten euskerea baserritarren ta ezjakiñen izkuntzatzat euki dabe.

Karreradun gizonak abadeak ez izanean, erderaz egiten eban ta erri xeeiak ganorazko izkuntza erdera bakarrik zala uste eban.

Nire gaztearoan beserri ta errietatik Bilbo aldera mirabe izatera joaten ziran eta andik etxera etortzean erdera motrollo

EUSKEREAREN ZERTARAKO?

bat egiten eban, euren aundikeria agertzearren.

Neska areik erderaz egitearren markesak zirala uste eban.

¡Badakizu guk zalan deitzen geuntsen?: «Zu markesa de baleuke zara». Zentzun bakokerian bizi zara zu!

Euskerea ezertarako ez dala uste daben euskaldunak asko dira ondiñokoan, batez bere Bizkaiko euskerea danetatik txarrena dala ta berau euskaldun sasijakitun askok baztertu egin gura dabe.

Orain egin dan euskera batuak bere Bizkaiera ia guztiz baztertu dau.

Jakin bear dozu bertako euskereak mende luzeetan Bizkai'ko erriari onura aundiak ekarri dau

Bizkai'ko euskalkiagaz elizak guztiz kristautu eban emengo erria.

Benetako euskal jakitunak esan oi dabe gure izkuntzaren aditza ederrena edo ederrenetarikoa dala; idazlari gorengoak ditu bizkaierak, etb. etab.

Ederra dalako ta geurea dalako, geure euskerea guztiok gaurtik asita geure izkuntza au sakon ikasi bear dogu.

Bizkaiera ondo ikasten ba' dogu, euskalki guztiak ulertuko doguz, ta ori izango da euskera batu ondo oñarritutako batera eltzeke biderik ziurrena.

¡Ez gaitzean lotsatu, ez etxean ez kalean geure euskera parra-parra egiten.

D. KLAUDIO

G. MANTEROLA, IDAZLE LANGILLEA

LAN EGIN BEARRA

Atzo lez gaur lanaren etikaz mintzatu oi gara, beronen balio, oiñarri, lege ta gaiñerakoen alderdiak arduraz azterturik.

Lana da, izan be, lur gaiñean bizi dan gizase-mearen zeregiñik bikaiñena.

Egoki jaku, beraz, arazo oni buruz, errez izan ezta be, alik eta eretxi agi ta zeatzena eukitea.

Lan egin bear dau gizonak, eta zerbitzuko ezpirituz egin be, bizi dan toki au menderatuz, mundua ta gizona bera gizatiago biurtu al izateko.

Munduan bizi da gizona, eta gizonen artean —gizartean—; Bioi eskeiñi bear dautse bere zerbitzuaren alegiña.

Ez dau lo egotarik.

* * *

Gaur askotxo dira lanetik igeska dabilzanak. Bala-bala diñoenez, gazteak ez dautsoe lanari oratu, eskurik ezarri nai: axe, atsegin jakena bakarrik.

Alperkeria, alan be, noiz ez da griña txar?

Eleiz-gizonai be iñoz leporatu dautse olakorik.

Urriñera bage, lengoan larrabetzuar batek, eleiz-gizonok Euskalerrian, kalte besterik ez dogula egin, bota eustan arpegira. Biotz ustela agotik utsitutean edozer gauza.

Baiña, esan neutsonez, nok emon dautso gure erriari daukon kultura, eleiz-gizonak ezik?

Irakur eta ikasi begie ao-gaizto ta eiñenti orreik, Eleizeak gure errian gizaldiz gizaldi egin-dako lana... Ala min damotse kondaira aintzagarri orrek?

Ba leiteke ori be, gaur edozelako piztiak bait ditugu inguruan.

* * *

Gabriel Manterola abadea genduan, eleiz-gizon trebe, langille bizkor.

Zeinnai alderditik begituta, orrelaxe agertzen jaku eta here bizitzaldi guztian agertu be.

Egundo ez eban naikoa zanik esan.

87 urte bizkar gain zituala be, ariastari ta ezin beti lanari lotua autortegian, pulpituau, naiz liburutegian.

Adimen-lana naiz eleiz-zerbitzukoa, ez uste izan lanik errezana danik.

Soin-lana bera baiño be neketsuagoa jatsu sarri adimen edo buru-lana, askok bestera uste izan arren.

Esku-langille batek, gaiñera, zortzi ordu izan oi ditu lan egiteko. Idazle batek, ostera, amar gora ia egunero.

G. MANTEROLA IDAZLE

Idazle ugari, oparotsu izan zan Manterola.

Gaztetan asi zan idazkortza erabilten eta bere zartzaroan be polito eragiten eutsan.

1914'an meza barria emon ondoren, Eibar'era bialdu eban Gotzaiñak ango lekaiñe-komentu bateko, kapellau eta Ander Deunaren eleizako apaiz-lankide: antxe bizi izan zah lan eta lan, beti zintzo ta nekagaitz, 1937'rarte.

Eleiz-karrera bitartean, ekian euskera sakona -gotzen alegindu zan arren, 1916'an asi zan idazten.

Eta, arrezkero, atertu barik idatzi eban, «Jaungoiko-Zale»-n atan be, itz lauz eta bertsoz. Baita bere lanak agertu zitun «Ekin»-en, «Yakintza»-n, «Karmel»-en, «Olerti»-n, eta «Agur»-en beintzat.



Umeakaz Inlaterra'n
A Ugalde, G. Manterola, A. Olibares y Aita Urrutia

Irakurle bizkorra zan, eta euskal pentsalari.

TVlaite eban bere erria, Euskalerrria, onek ditun do ai lilluragarri guztiekin.

Apaiz bezela, Kristo'ren Itza ta Jainkoaren erreñua, lumaz ta miiñez zabaltzen ez eban atse-denik artu.

Eta euskaldun bezela, euskaltzale eredugarri dogu, euskeraren alde osotu euskun lanagaitik batez be.

Gaztetan ez-ezik, bere zartzaroan be euskeraren onerako ziran batzar guztietara jo oi eban, Karda-beraz taldekoetara berariz, bere agiri ta itzez batzarkideak poztu ta indartu naian.

G. MANTEROLA'REN IDAZ-LANAK

Lana ez da bear gordin latza bakarrik, «dei» aparta baiño.


Deia, bai, aleiz-gizon batentzat batez be; mundu barria jaso ta eregiteko deia.

Jainko erreñua, emen asi ta bestean osotuko dana, orixe da eleiztar batek bere zeregin eta egiteko guztietan begi aurrean euki bear dauena.

Dei orrek eraginda idatzi euskun Manterola'k.

Or ditugu bere idatziak, txorta baten batzera ezkerro, liburu aundiak osotuko leukiezanak.

Bego emen euren erreskada bakarrik:



ERRITARRAKAZ

- GOI-IZPIAK (Zornotza, 1921). 42 olerki dira. Eibar-Isasi'n, 1920'ko Miren Sortzez Garbiaren egunean egin eutsan itzaurrea. Aurreko urteetan «Jaungoiko Zale» n agertu zituanak dira geienak. Ez daukaz berak zer aunditatz; bere burua eleiz-txoritzat jorik, onela idazten dau: «Urretxindor-rrak abestutea obe litzake, baiña oneik banakak diran artean eleiz txorien abesti apalak be entzun bearko».
- EUSKAL-EGUNETAKO ITZALDIA (Bermeo, 1922). Durango'n egiña.
- SANTUEN BIZITZA LABURRAK (Zornotza, 1922).
- IPUINTXOAK (Zornotza, 1929) Schnaid'en ipuiñak Manterola'k euskeraz jarrita. Bigarrenez be 1934'an argitaratuak.
- AGIRRE EUSKALTZALE (Yakintza, 1934).
- GOI-IZPARRAK Zornotza, urte barik . Jaungoiko Zale'ren irarkolan aterata.
- JESU-KRISTOREN NEKALDIA. Bilbo'ko Koliseo Albia antzokian emon ziran Kristo'ren Nekaldiaz 40 irudi.
- GABONETAKO ANTZERKI YAUNKOIA. 40 gabon-irudi, oneik be Koliseo Albia'n antzetzauak.
- GOTZAIN-IDAZKIAK. Gerra aurretik, Mateo Muxika'ren artzain-idazkiak Manterola'k jarten ebazan euskera, Baita Morcillo'ren lenengoa be.
- IRUGARRENGOEN IRAKASLEA. Berak ipiñi eban au be bizkaieraz, urte askotan.
- ITZULPENAK. Gerra ondoren, Frantziatik eta Ingalaterratik ibili zan. Baiña etzan geldi egon: prant-tes eta ingleseiz naikoa ondo ikasi eban, eta ainbat liburu itzuli euskuzan inglesetik eta prantse-setik gaztelerara.
Ona batzuk:
 - 1) L'ENSEI GNEMMENT DE LA MORAL CHRETIENNE: LA ENSEÑANZA DE LA MORAL CRISTIANA (Bilbao, 1952), J. Leclerc'ena.
 - 2) LA VIE DU CHRIST DANS SON EGLISE: LA VIDA DE CRISTO EN SU IGLESIA. J. Leclerc'ena au be.
 - 3) CHRISTIANISMES ET CHRISTIANISME: CRISTIANISMOS y CRISTIANISMO (Bilbao, 1952), G. Thils'ena.
 - 4) L'HOMME NOUVEAU: EL HOMBRE NUEVO (Bilbao 1953).
 - 5) DOCTRINA ESPIRITUAL DE DON MARMION (Bilbao, 1953), Thibaut'ena.
 - 6) THE PHYSICAL FENOMENA OF MISTICISM: FENOMENOS FISICOS DEL MISTICISMO (Bilbao, 1953), Herbert Thurston'ena, eta abar.

Lanetik lanera ba-da tarterik, joanaldi naiz obetu arduraz ekin bear dautsagu eguneroko etortaldirik. Baiña, beti be, erriaren alde, mundua saillari.

Euskaldunok atan be.

Guk bizi garean lur-sail eta jendartean arlo beingoak doguz, urratu ta landu bearrak. Atzera itxi eziñak, gaurkoak.

Orretan alegindua dogu G. Manterola bere bizialdi osoan.

Lanaren ondoren egiñaren, et bear bada sariaren poza izan oi dogu. Gure ekiñetatik saio ta zirkiñik pitiñena be sarituko ei dausku Jaunak...

Onezkero, beraz, ortan gagoz, artua dau emen irabazitako sari-koroia.

G. MANTEROLA OLERKARI

OLERKARIA AMESLARI

Asma ezin ala eritxi ta aburu zabaldu izan da olerkari edo poetari buruz.

Ameslari ta ero batzuk dirala be, sarri entzun da.

Ain zuzen, be Paul Valery'k diñoanez, koplariak ames dagi, itxarrik be ames. Zer ames? Jente artetik urrinduta dagoala, bakar ixillaren altzoan; mundutik aldendua, amesketa utsean diarduala, buru-ganbaran iraulketa.

Bizkargi'ra zoazela egizu.

Gorantzakoan, ezker-eskuma, or zugatz-ziri mokoetan lore-pilloak zoragarri. Zerk eraginda ez dakizula, beste giro baten, beste mundu baten aurkitzen zara. Mundu ontaz kanpora bizi zara, zeure senetik joana. Ta ames dagizu.

ERRUDUN?

Ames egite au, barriz, obena ei jatzu.

Besteakandik orrela aldenduten dana errudun ei dozu.

Ames dagian gizonak, bizidun mundukoan kontra ames dagi: ames-aldi orretan eten ditu urkoakaz zituan loki estuak, eta ez dau iñorekin artu-emonik.

Gizartean bizi izateko jaiok garean arren, olerkariak bere zatia ukatzen dautsa deiez daukan munduari, ta urko laguna, oartu barik, beragaz euki bear leuken zer-ikusitik urrintzen ei da.

Ta au errua dozu, olerkadariak dagiana nunbait.

G. Manterola, be, naiz-ta giza-zeregin askotan murgildua izan, olerkariaren antzera gizartetik iges eginda ibilli yakun iñoiz edo beste.

Giza-zarata artetik baztertuta, ainbat koplak biribildu euskuzan.

Olerkari dogu, ba.

IZPI BEROAK

«Jaungoikoa-Zale» ta «Ekin» aldizkarietan batez be, zenbatu ezin beste daukazuz aren lumatik urteniko koplak.

Eredutzat bat aztertu dagigun emen, mundutik alde egiña ibilli yakuneko bat.

Egi ta zorunaren billa ibilli zan, giza-biotzak joranez opa dabezan doe bion billa.

Oneik, ostera, berak diñoskunez, «eguzkiaren izpi beroan antzera goitiko igaliak dira» ta geu-

gandu gura ba'ditugu, «nai ta nai ez, adimen-biotzak goirantz yaso bear».

Aundi-naiz zoratuta dakus mundua; zuzentasan legea errez dau ostikope jarten.

Txindi billa dabil, orein egarritsua iturri billa legez; zikoitza urrearen dizdizak lilluratzan dau, jakintsua egiaren izpiak: ames dagie bitzuok.

Baiña egia, bakea, zoruna benetan aurkitzeko, goirantz jaso bear ditugu begiak; ez ezarri biotzak ludiko gazetan.



EUSKALDUNAKAZ

UDAZKENA

Udazken goizez, olerkaria, ezin egonaren arnasapean etxetik urrindu ta esparru osteko muiño gaiñera joan jaku.

Illun dauka ingurua, zerua goibel; aizeak irrintzi dagi zugatz artean, pago zarraren abartzan... Ostoak, irabio zoroan, alkar joka doaz goiak betean dantzari.

Olerkariak onela kantatzen:

Udazkeneko egun itunan
ortzea goibel dakustanean
eta ausarditsu axe-erauntsia
sartuten dala zugatz artean;

orri guztiak irabioka
euren bizi aztuta lez,
alkarren leian ikusten dodaz
bildur-ikaraz iges-iges.

GIZONA ZER DA? ORRIA... LAÑO...

Itun jarten da olerkaria.

Biotza larri ta oldozkun biurritz adimena.

Bere barnera itzulirik, kontzientziaren azpiko leza barnekoira, gizona ta bizitza datorkio gogora.

Aizeak deroan orri bizi ez al da gizona?

Goibel jarten jat neure biotza;
oldozkun batzez daukat itun;
poza damostan gauzaz aztuta
nai ez da jarten naz oldozkun.
Zer dan bizitza? Gizona zer dan?
Irudi ontan argi dakust:
axe erauntsin aldi zolia,
Orriak gizona darakust.

Irudiz kalean ukusten dau gizona, zar bat, gazte bat, bardin da.

Langille bat da, dendari, erri zain, naiz arotz bat, bardin da.

Nornai dala, gizona da beintzat.

Aizen zearka, txori bat igaroren yako, antzekoa dozu gure bizitza.

Aizean zearka, txori bat igaroren yako, antzekoa dozu gure bizitza.

Ontzi bat doa indartsu ibai zabalean: gizasemearen pareko.

Laiño-mordoa dabil igeska jarrita dagoan muiño azpitik zear. Eta olerkariak diñotzu: «Laiño antzedun da gizona».

GIZONA? LORE EDER-IGER

Ezkerreko sasi-puntan, goizean erne dan lora-zil aratza, eguerdi ostean jagi dan aize-burrubak laskituta dakus.

Antzekoa da gizona be.

Olerkariak kantari:

Argi dirian laztan artean
Jaio dan lora samur, eder,
eta arratsean bizitza barik
gelditzen dana iger-iger.
Udazkeneko egun ituna
axe-erauntsi eta orri igarra,
Ludi ontan bizitz laburran
bakar-bakarrik oixe gara.

NONDIK ZORIONA?

Adu orretakoa dan gizonak izan ete leike, ludiko zaratots artean, benetako zorionik?

Aizeak astindu dauan pago zarra baizen zurtua dago olerkaria: ezin dau ulertu.

Orri samurra, laiño lurruna,
auts ezereza da gizona.
Zelan ba bizitz ain laburragaz
alkartu leike poz-zoriona?

Gizonak bizi-bizi, barne zokoan, oartzen daun zorion egarria asetu baga geratuko ete?

Ez al da zerbait su ori arintzeko?

Zer diñozu zuk zar orrek? Zer diñozu zuk gazte?

Olerkariak ba-dau giltza korapillo ori askatzeko; bai, azkenik au dausku jalgitzen:

Bakar-bakarrik bere gogoa
asetu leiken goi-bizitza
beraganduta, zorunduko dau
auts besterik ez dan biotza.

Or egarria asetzeko ur gardena, goiko iturritik txirrioka dariona.

Lur-bizitzak emoten ez dauskuna, goi bizitzak eskintzen dausku, eta emoten.

Borborrean ura darion iturritik ez edatea, ostera, erokeria dirudi.

Lore-zale dan neskatzak, lore artean ibilki, lorarik batzen ez ba'dau, «ergel» esaten datsagu.

Gu ez gaitez an ergelak izan.

AITA ONAINDIA

JAZOERA MINGORRA

Eukslzaindiaren batzar baten zan.

Bazkiderik zarrenetariokoak Manterola ta Intza.

Euskera batua bear zala ta, eztabaida gogorra
sortu zan.

Gazte batek esan eban: —Zarrak il egin bear
dira.

Egun gitxi barruan, gazte ori berebillean bidez
joiala, alkar jote bat izan zan eta il egin zan.

Urrango batzar baten Manterola'k eta Intzak
alkar ikusi eban.

—Zu! Gogoan daukazu gazte arek azkenengo
batzar aretan esan ebana?

—Bai. Ondo gogoan daukat.

—Jaungoikorik ez dagoala esaten dabe batzuk,
baiña bai, Jaungoikoa ba dago!

ENTZULE BATEK

TXOMIN AGIRRE ONDARRUTARRA

Ondarrutar jator ete zan Txomin Agirre?

Orretarako ez da naiko emen jaita bertako izen-abizenak eukitea. Izen goitia be bear da, izer ordekoa, des-izena.

Ondarroa'n ba daukaguz milla ta eundak des-izen. Batzuk politik eta jatorrak, lekuetatik, bizimodutik, izatetik datozanak. Itxusi eta zatarrak be bai.

Des-izenak jakitea nai izaten dabe toponimi ikasleak, erriaren filozofi ikasleak eta beste jakin zale askok. Baiña nok matrailla luzatu zatarra daukan bateri berea argitaratzean? Or kakua.

Txomin Agirre'k ba eukan berea. Abade eginda gero, «Txartxa» abadia deitzen eutsen, bere aita izen orretako baserritik etorri zalako gure errira.

Beraz, Agirre ta Badiola'k baiño ondarrutar ezaupide geiago irugarrenak emon eutsan, «Txartxa»k. Ondarrutar sendatza edo konfirmaziñoia da ori.

DOMINGO ALA TXOMIN?

Oraintsu, talde bateri, «Domingo de Agirre» ipiñi dautse izentzat. Oker? Ez. Baiña errikoiago, familioago izango zan nunbait Txomin.

Ziurra da Agirre'k, bere gogozkoen, Txomin erabiliko ebala. Karta bat edo bestetan Domingo de Agirre izenpetu edo firmaten dau, baiña geienetan, Chomin edo Txomin, bere garaian ortografi ori erabilten zalako.

Gure itauna: Egoki ete yatorikon Agirre'ri Txomin deitzea?

Berari Domingo Ascension ipini eutsen, igokunde eguna gertatu zalako bataio egunean.

Eta zer iñoan Azkue'k Txomin izenari buruz? Ba Txomin erderazko Jose Domingo dala.

Azkue'ren iztegia artu eta Josepe izenari dagokiona irakurri: «Al unirse a otros nombres cuya inicial es una vocal, forma este nombre de Jose unos compuestos curiosísimos: Txanton en vez de José Antonio, Txomin en lugar de Jose Domingo, Txandres por José Andres».

Eta Txomin izena ikustean, au diño «variante vulgar de Domingo o Jose Domingo».

Guk, maixuak esan dabela ta ixil egonda irabaziko ote dogu?

ERRI PENTSAKERAZ NUNDIK ETE EBILLEN TXOMIN?

Orta, guk erantzun barik, berari lagako dautsagu argitzen.

Agirre'k diño bere aita eta bere sendia, familia, oso eleizkorak zirala. Sekula ez zirala oeratzan oi ziran errekuak, berak arrenak esaten dau, egin barik.

Baiña orduan be giro nastetsua ebillan kalean. Zuriak eta baltzak deitzen ziran alderdi bateko edo bestekoak. Berak diño umien artean be asko sartuta ebillala bereizkuntza ori. Umetan igarri ebala kalean orrelako garraztasun zerbait; umeak be, alkarregaz, asarre ibiltan ei ziran.

Eta orrela, «gau baten, nire aita, gizon zintzoa, siniste andiko gizona, gure arrenetara etzan agertu. Mendira joan zan, gora Kristo, gora Sorterria deadar egiñagaz. Orduantxe lenengo aldiz deitu neban deadar berbera».

Ori diño berak.

Gertaera ori 1873/1874 urtetan izango zan. Beraz Txomin'ek bede-

ratzi-amar urte eukazala. Jakiña da urte orreitan irugarren karlistada gertatu zala. 35.000 gizon eukezan Iparraldean karlistak armetan. Berrogeitazortzi batalloi aurrez-aurreko, (infanteriko) eta eurekin batean borrodatezkoekin, boluntarixoeekin osotutako tertzioak.

Ontaz Txomin'ek esan eban:

Ogei urte geroago, aita gaixorik txarto egoala, kezkatu igarri ebala. Ordurako bera abade eginda egoan. Eta kezka ori zetatik etorkion jakin nairik, eta parkatu bear ba zan parkatzeko ta nasai lagateko, aitari itandu eutsala:

—Zer dozu, aita?

—Kezka bat.

—Zer da baiña?

—Oraingo gizonak beste iritxi baten dabiltz... Arako mendira joatea okerra zala diño. Txarto egin ete neban ba?

—Zegaitik joan zan?

—Jaungoikuagaitik. Berak daki ondo. Sorterriaren alde.

Eta berak, ori entzunda, esan eutsala, bakez ilteko. Berak, semeak, ontzat artzen ebala jokabide ori eta bere pentsakeretan jarraitzeko ustea ebala.

Txomin'en aita 1893 urtean ilzan, Azilla'ren 14'an, 67 urte eukazala, «pasmaogaz».

Orra Txomin, orduko jokabide ta pentsakeretan zelako zan.

Geroago, ainbat kartetan, foru zale agertzen da eta erri zale. Eta bere lagunak esaten dabe, iñoiz ezetza esateko-ta, erderaz ebillanean, «no me da la foral gana» ta orrelako esakerak eukazala. Beti be Euskal-erri naitale.

A. ZUBIKARAI

BARRIAK

BIZKAIERAZKO ANDEREIÑOAK

Egia esan, Bizkai'ko erri askotan, «batua»ren andereiñoak ez dira onartzen.

Ori Euzkadi guztiak jakin bear dau.

Zer dala ta?

Errazoia agirian dago.

Sendietan euskeraz dakien gura-soak, eurak egiten daben euskerea euren seme-alabak be egitea gura dabelako.

Seme-alabak asten jakezenezan-Aita ! Ama! Ori ez da orrelan esaten!, aita-amak ixilik geratu bear izaten dabe eta eurak dakien euskerea ezin izaten dabe irakatsi.

Baten batek esango dau bere artean:

—Ori ik esaten dok, baiña ezetz esan non edo zein erritan jazoten doken ori!

Jakin gura dauanarentzat, erri bat beintzat aitatu bear dodalakoan nago.

Zubi ospetsua dingilizka daukan errian, Portugalete'n, jazoten da or!!

Eta askotan andereiñoagaz eztabaida ta burruka itzalak izan dabez.

Jazokun au ezin daiteke ukatu. Osterantzean joan bertara ta itandu ango Bizkai'tar sendiai.

Eta Portugalete'n jazoten dana, Bizkai'ko beste erri askotan be jazoten da.

Noz burura sartuko dabe «batua»ren irakasleak, umeari lenengoz gurasoen euskerea egin bear jakela? Orixe da, apur bat apainduta, «Urretxindor» Enbeita'k, Azkue'k, Txomin Agirre'k, Kiriki-do'k eta beste askok irakatsi eus

Bizkaia'ri bere euskerea emoten ez ba'dautsagu, tamalez, zori txarrez, laster ezereztu ta galduko da euskerea eta Bizkaia erri erdel-duna izango da.

EGILUZE

Bere eleiztarren ondora barriro biurtuta, laster, bizkaitarra ta jeltzalea zalakotzat salatu. eben, jeltzaleen alizkariak irakurten zitalako.

Beste euskaldun abade asko lez, erbesterau eben, Gotzainari abade ona zala ta politikan ez zala sartzen esan arren.

ERDERARIK EZ

Berbaldia amaitukeran sermolariak esan eban: Orain uste izango dozue erderaz laburpen bat egingo dodala. Baiña euskeraz egiten dan errietan ez geunke egin bear olako laburpenik. Euskera ez dakienak alegindu daitezela ikasteko, Euzkadi'ko izkuntza euskerea da ta. Jakin egiela Humbolt alemandar jakintsuak iñoana: «Mundu zabaleko izkuntzen artean ederrenetarikoa da euskerea».

OMENALDIA ZOR

Eleiz-Barrutiak eta Abadeño'ko eleiz-tarrak Letona'tar Aureliano Jaunari omenaldiren bat egingo dautsoela uste dogu.

Egun orretarako deituta dagoz bere Meza Barriko izan zan aitabitxi ta beste ezagun guztiak.

EGILUZE

URREZKO EZTEGUAK OROZKON

EZTEGU-MEZEA

Orozko'n, Ibarra'ko Atxeta'n, Jazokun eder eta gomutagarri bat izan dogu.

Letona'tar Aureliano jaunak, Atxeta'ko lenengo semeak, orain Abadiño'n abade dagoanak, bere lenengo Meza Barriaren urrezko ezteguak, berrogeta amar urteak, ospatu ditu.

Jai au senide artean bakarrik izan da.

Atxeta-ondoan dagon mojem etxean, lenengo mezea esan eban eleiza beratan, bere anai dauan Deustu'ko pasiotarra ta bigarren lengusu bat lagun dirala egin zan mezea.

ANAIAREN BERBALDIA

Ebanjeliotik artutako irakurgaiaren ostean, esandako anai pasiotarrak egin eban berbaldia.


Aureliano'ren bizitzako jazoera oar-garriak gogoratu zituan.

Abade-ikasketen erdi-erdian, Aprika'ra joan-azo eutsoen, Marruekos'en sortu zan gudan gudari izateko.

Andik barriro Gazteiz'ko abadegaitegira, ikasketak amaitu arte.

Abadeiño'n egoala, jazo jakozan zoritxarrak.

Azkenengo gudaldian, gorrien eskuetan ez jausteko, Abadeño'tik Begoña'ra jaon bear izan eban.



BULTZI-LAGUNAK

TRESNA ZARRAK

Euskaldunok oso ardura gitxi izan dogu tresna zarrak gordetzeko.

Bear ba'da, ez dogu inoiz pentsau orain ezetarako gauza ez dan tresna bat, denporan balio aundiko biurtu leitekenik.

Orrelan, gure basetxeetako ganbaretan zenbat tresna alperrik galdu, bota edo apurtu doguzen, —tresna zarrak sutara-esanez!

EROSLEAK

Oindiño tresna zarren erosleak or da-biltz baserririk baserri, lengo kutxak, laiak, zizaiilluak, argizaiolak eta abar erosi guraz.

Eta baserritar batzuk orrelako kutxak, ezer ez dabelakoa balio, uskeri batgeaitik saltzen dabez.

Zorionez, euskaldun asko konturatu dira, naizta batzuntzat oso berandu izan. dabez, makiña berari argazki batzuk atara eutsoezan gazte bik berba egin eusten erderaz, frantzezez ain zuzen be eta ia emengoa nintzan eta Bultzi-zalea nintzan esan eusten.

Baietz erantzun neuntsen.

* * *

BULTZI LAGUNAK

Gazte bi oneik Frantzia'koak ziran eta ango «BULTZI-LAGUNEN» alkartekoak.

Alkarte onetan antziñako bultziak zaindu eta erakustoki bezela eukiten dabez eta noizean bein txango batzuk egin, 15 km'ko abiadaz.

Gazte oneik euren oporraldian Euskalerrira etorri dira, emengo bultziak ezagutzeko ta lortu dabe gurari ori.

Neuk baiño gauza asko geiago ezagutzen ebezan.

Egian esan, beste urte batzutan be emen izan dira.

Alegin batzuk egin dabez emengo lurrun-makiña bat erosi eta euren bazkuneru eroateko, baiña lan guztiak alperrik izan dira, oztopoak baiño ez.

Arrituta egozan: Onelako gauza zarrak zelan itzi leitekez baztertuta!

* * *

SOMERA KALEAN

Eta onelan «Vasco .Navarro» bultzia, edo Iruñakoa, Bisasoa'koa, Gazteiz'koa, Ofiati'koa, Mungi'koa, edo Elorrio'koa dala, konturatu barik, Bilbo'ra eldu giñan.

Ori bai, bidean geltoki bakoitzean egozan bagoien zenbakiak ingurrazki baten artuaz.

Bilbo'ko Somera kalean ardao bi edan ondoren, alkar agurtu genduan, ikusi arte esana.

* * *

ITAUNA TA ASMOA

Gazte onein zaletasuna ikusita, itaun bat egingo neunke:

—Zergaitik ez Euskalerrian orrelako alkartasun bat gure antziñako bultziak zaintzeko ta erakustoki bat egiteko?

Eta amaitezko asmo bat:

Durango'n, baztertuta ta ugarrez beterik dagon «Zugaztieta n.º 1» lurrun-makiña ez litzake obeto egongo Zomotza, Gemika edo Zugaztieta'ko geltokian, oroigailu bat lez, ondo zainduta, jakiña?

ZANGRONIZ



ANDENAREN PAREAN

BULTZI ZARRAK: ZUGAZTIETA I

Gaur gai oneri buruz, Euskalerriko bultziak dirala ta, zerbait esan gura neunka.

Lengo egunean, Durango-aldera joan nintzan eguna emotera.


Durango'ko geltokian, bultziaren zain nengoala, geltokiko bazter baten, Zomotza'tik Gemika'ra ibili zan lenengoetariko lurrun-makiña bat, «Zugaztieta, n.º 1» izenenkoa egoan, bagoi zar batzun artean, ugarrez beterik.

Zenbat joan-etorri egin dauzan makiñatxu onek, Jaungoikoak bakarrik daki! Baiña orain orra or nun dagon baztertuta, lagata, umeen jostaillu biurtuta.

* * *

GAZTE FRANTZEZ BI

Iru edo lau argazki atera ta gero, «anden»era niñoiala, nik baiño lenago, itxura



ZUGAZTIETA N.º 1

BERTSOETAN

ERBESTERATUAK ETXERA

A spaldiko oiva zan Euzkadi'n, «Presoak kalera».
«Erbesteratuak etxera». gorriak ikusita gero, azken urte oneitan Urruñe'n bizi



Zeanuri'ko errian ba genduan berrogei urtean erbesteratuta geunkan bat. Lejarza'tar Eujenio.

Paris-aldian eta beste erri askotan, Prantzi-aldian izan jaku, bere emazteagaz, bake-bakean eta atzerrian bizi al leiteken neurrian zoriontsu.

Politika-arazoakaitik atzerriratua izan zan guda ostean eta Paris'en, ebesteratuen artean aurkitu eban gaur emazte dauan andra gipuzkoar zintzoa. Joseba Andoni Agirre Lendakariak izan eban onetan zer-ikusirik.

Demokrazi-giroa Errian sortzen asi danean, itxuraz beintzat, ona agertu jaku Eujenio, ikurriña eskuan dauala eta burua makurtzeko bear-izan barik, nai eban lez.

Erriak arrera ona egin dautso, jakiña, eta bere lagun zarrak pozik besarkatu dabe.

Sarrera egunean izan ziran berbaldiak eta «gora» oivak ugari, baita bertsoak be. Jose Mari Artetxe bere lagunak be ba eukan bertso batzuk botateko guraria, baiña bertsolari au aspaldi onetan daukagu abots barik eta ezin. Basilio Pujana, erriko bertsolari txebeak bota zituan bereak.

Oneixek dira:

Anaiak alkar besarkatzean eiten dira pozez bete; anaiak asko poztu arren be, nor bere amatxo beste? Amatzok bere seme guztiak beti izaten dauz maite. Zure seme bat etorri da ta, Zeanuri poztu zaite.

Gure Eukeni etorri dala ezin sinisturik nago, ainbat urtean erritik kanpo, berrogei edo geiago, sinistu ezin baiña berakin naiz berbetan aoz-ao. Guzurra dala dirudi baiña Eujenio emen dago.

Ama Zeanuri oraindiño be ez dago guztiz poztuta, bere altzoan seme askoren utsak ikusten ditu ta; gure amatxo poztu dagigun, guztiok aleginduta, familia maite bat egiñagaz, baiña danok askatuta.

* * *

Gure artea izan zirian preso ta fusilatua, bai ildakoak eta zaurituak eta bai desterratuak Norberarenak errazoiak ta besterenak pekatuak, baiña guztia parka bearko naita ezin izan aiztuak.

* * *

Azillona'ren esakera bat esango dot gaur gogotik «egia gugaz, guztien aurka» errazoiaren bidetik. Gure Jesus'ek igon eban lez lexako arri azpitik, egiak gora igongo dauku, len lez orain eta beti.

* * *

Tamalgarri da: ilte bildurrez joan bear erbestera; atsegin be bai agertutea, andik berrogei urtera, gure Eukeni ez dau ordaindu guk egin geuntsan arrera, egun bi barru iges ginda itzi gaitu bertanbera

PUJANA'tar Basilio'k

FRAI BIRILA

Leire'ko lekaide-etxean jazorikoa lez agertzen da Frai Birila'ren ipuin zar eta ospetsua.

Leire aldi aretan lekaidetxe euskalduna zan eta antxe gertatzen ziran euren zeregiñerako Naparroa'ko erreñuan izan ziran lenengo erregeak, an artzen eben jakintza ta eziketa egokia, antxe ikasi eban irakurten eta idazten Eneko Aritza lenengo agintariak.

Gaur be Leire toki zoragarria da eta bertan dauke lekaideak ostatu egoki bat ara egunak igaroteko joan gura dabenentzat.

Lekaide-etxearen aurrean iturri baterako bidea erakusten dau gezi batek eta gaiñean daukan izkiak diño: Fuente de Frai Virila.

Irakurri dagigun gure Manuel Estonba'ren ipuiña, Frai Birila au nor zan jakiteko.



FRAI BIRILA'REN IRUDIA
LEIRE'N LURDEKO ELEIZ
LEN-ERROMANIKOAN

Frai Birila eritxon prailla bat bizi zan, antxiña, Naparroan dagon Leire'ko konbentuan.

Kezka bat bakarrik eukan prailla santu onek: Zelangoa dan geroko zerua eta zelan aspertu ezin daiteken betiko bat orretan.

Gogoeta oneik buruan zituala, urten jatzu bein egurastutearren konbentuko baratzera.

Baratza laukitan banandua zan. Eta lauki bakoitxak lore-matazak: larrosak, krabelinak, bioletak, zitoriak... Eta beste lauki batzutan: kereixak, sagararak, okaranak, muxikak esitzat inguru guztian. Eta arnari-zugatzok, lora-loratan.

Baratzetik gora jarraitu eban, gero, Frai Birila'k eta bedarsoloetan galdu zan.

Berde illuna eukan bedarrak azpiko aldean; berde argia, erdian; eta erre-kolorea gain-aldean.

Eta kolore guztietako lorak agiri ziran bedar-zirien gaiñeetan.

Bere ibilaldi asper-gaitx aretan, baso baltzera sartu zan, gero, gure, bidaria.

Basoa... aretkez, gaztainez, eta pagoz jantzia. Eta arein azpjetan, muskarren oge gozo diran odoldiak.

Basoaren goienetik aurrera, atx mus-turren txapel zuria.

* * *

Ibillian-ibillian, noz-edo-noz aspertu zan eta ondoko iturrira joan zan prailla, atsedon-billa.

Iturri-ondoko arriak odoldiz jantziak ziran, eta ira orlegiz beteak; menta eta beste lora usaintsuaz josiak...

Iturrian dana ixilik.

Uren pol-pol ezta, bakarrik.

Txori bat ontan asi zan kantari.

Ez da bera agiri...

Aren txinta, bakarrik, nabari.

Urretxindorra ete da?

Ete dan, ez dan... txinda orrek zoratuazo eutson eta lilluratuta itzi eban prailla gaisoa : gorputza bizi, burua zutrz eginda, zentzunak arduratuta.

Noiz arte?

Arako baten beraganatu zan eta bere artean esan eban: Nik daukat burua! Oraingo praillaek koruan dagoz! Eta konbenturantzta joan zan abiadan.

Atea zabaldu eutsoen eta prailla baten aurrean aurkitu zan.

Begitu egizu, anaia! Au da Leire'ko konbentua?

Auxe da, bai.

Eta zu nor zara?

—Ni...? Bertoko Abata.

—Uuf!, Eskuz burua jota, orduan gogoratzen da abata barria, orain irureun urte, bertoko Frai Birila, konbentutik urten eta ez zala sekula geiago agertu. Eta, gero, garriraiñoko bizar luzea eukan fraille areri itandu eutsan:


—Ez ete zara zu, bear ba'da, Frai Birila?

Bai, neu naz !

Eta non egon zara irureun urte oneitan?

—Irureun urte? Oraintxe, lentuago, urten naz baratzeru egurasteko eta emen natorkizu korurako... Eta nik an iturri aretan entzun dodazan txori txintak edo abestiak! Alako zerbaite ete da gure geroko zeru ori?

ESTONBA'tar Manuel'ek



FRAI BIRILA'REN LEKAIDE-ETXEA, LEIRE'NF

GAZTEDIA

ERRI-GAZTEDI, ZERGAITIK EZ?

ZEANURIN ALKAR IZKETAN

On Gabirel Manterola, Abade jakintsua izan zana-ren illetan, ainbat euskazale agurtzeko ere izan genduan, danak azken-agurra maitekor emotera, Zeanuri'ko bere sorterrira etorriak.

Meza-ostean, ainbat eta ainbat alkar-izketa talde sortu ziran, olakoetan oiturazko diran gaiak ikutuaz, eguneroko ogia diranak.

Azkenerako baiña, talde aundi bat geratu giñan: euren artean abadeak geienak, Bilbao-Ibarra'tar senar-emazteak eta gu. Ibarra'tar Karmen oso ezaguna da Bizkai guztian eta gaur egun Begoñazpi'ko ikastolako andereiño.

Zergaitik Bizkaia'n ezaguna?

Ba, Erri-Gaztedi. Eleiz-Barrutiko lan-taldean idazkari, erantzule, bateratzaille edo dana dalako izan zalako aldi batean.

ERRI GAZTEDI ZER ZAN

Zertarako sortu zan Erri-Gaztedi?

Ez dakit oker ba'nago «Kristau ikuspenetik erriko arazoan erantzuna emon al izateko, euskaldun gaz ezi ta gertatzeko» sortu zala esatera ausartuko nintzake.



ERRIAREN ETORKIZUNA GAZTEDIA DA

Erriz-arri, makiña bat itzaldi, alkar-izketa ta batzar aukeratze egindakoak doguz Karmen eta orduko abade jator aretarikoak.

JAZO ZANA

Ain igali edo frutu ederrak emoteko sortu zan alkar-te aregaz zer jazo zan?

Ba, beste Eleiz-Barrutiko lan-talde geienakaz igaro dana: giro berezi baten sortuak izan zirala ta giroa aldatuaz batera, ankaz-gora joan zirala.

Arrazoiak aztertzen asiko ba'giña, Eleizearen eta gure Erriaren «problematika» dalako guztia astindu bearko genduke... eta ez da ori gure gaurko asmoa.

Errigintzarako sortu ziran lan taldeak, askatasun bako giro nabarmen baten, ez euken bide errezik.

Politikea ta errigintza, errigintza ta politikea alkarrari katigatuta dagoz eta ortik, korapillo au bitarteko zala, gazterik jatorrenak, abaderik emonkorrenak bear ba da, politika arlorra jo eben eta ortik etorri jakuzan erritarren arteko zatiketa ta Eleiz-Barrutiko erakundeen apurketa.

BERBIZKUNDERANTZA

Baiña, joanak joan, len aitaturako meza-ostean, olako alkartean berbizkundera derrigorrezkoa zala azaldu zan.

Gazteak gaur zenbat gura aukera daukez politika aldetik errigintzarako, baiña uts-une ikaragarrizkoa aurkitzen dogula eleiztar geranok, ezin ukatu.

Kristau kutsu, kristau-testigantza erakusgarri izateko oso gitxi gertatzen dira.

ZEREGIÑAK

Ez dagoala zeregidik?

Bai orixe! Ta derrigorrezkoa gaiñera eleizearen etorkizunarentzat.

Politikeari dagokiona alde batera itzita, gazteen arteko giroa zuzentzea ez litzake elburu makala izango.

Askatasun eske oi ta itz politikak jaurtitzeari ondo deritzagu, baiña Euzkadi gaur arrisku baten ikusten dogu.

Errietako gaztedia (uri-buruetakoa zertan esan be ez) alkoholkerira, drogakerira (bai, drogakerira!) ta ganorabako aurrerakoitasuntzat artzen dan aragi jausita ikusten dogula ba'diñogu... ez dogu gauza barririk esaten.

GAURKO GAZTEAK BALIOKO

Baiña bide orretatik abiatu dan gaztediak balio ete dau ezertarako?

Sortaldeko gaztedia ez ete da asko be zentzundunago?

Ala beste biderik ez?

Jaungoikoari eskerrak, asko dira oindiño izatez, gorputz eta gogoz osansuntsuak.

Olakoekin zeozer egin al izango da, bestelakoakaz ez, sendiak apurta ta Euskalerrria ondatu izan ezik.

Ondamendi orretatik, al dan neurrian, gaztedia atartzeko ikusten dogu guk, Erri-Gaztedi lako erakundeak barriro be arnasa emonez, sua piztuaz eta indar-barrituz zutunik ipintea.

ASTEKO BIDEAK

Zelan asi?

Nondik asi?

Badira oindiño lengo abade jatorrak lanerako gertu!

Badira oindiño Karmen lako gazteak (orain gaztea arduratuta, eleiztar dirala lotsatzen ez diranak, erri geienetan egon be.

Guzti au euki ezkeru ez da besterik bear.

Lau emen, bi an, pilloa bestean, talde txiki edo aundi batzuk sortu, alkartu, araudi errez eta zabal bat danon artean aukeratu... ta lanean asi!


Gaztedia berez emonkorra da ta ondo ezita gagoana, edonon izango da mezedegarri Euzkadi'rentzat.

Ba ete da errigintza obarik udaletxeak osotzeko auteskunderak ganean doguzala?

Aurrera ba Zeanuri'n uste barik alkartu ziñanak!

Bada zuen artean, gura izan ezkeru, gurdi astun au martxan ipiñi leikenik !

ARENAZA'TAR JOSU



Arana'tar Sabin'en bizitza-edesti onek iru zati ditu: Lenengoak, gure abertzaletasunaren maixu ta seaska danaren jaiotelekua adiazoten dausku.

Bigarrenak, bere barrua, oso-osoan agertzen dau, eta berau da naikoa idazti au irakurgarri egiteko.

Irugarrena bearrezko osagarri bat dogu, irakurle abertzalearentzat emon leiteken gauzarik onena. Iraslcaren eriotzatik gaur arte, gure abertzaletasunak izan ditun agerpenak dira. (Liburuaren sarre-ratik artuta).

38 urtekoa ziñala, eldua il ziñan. Sendoa zure gogoan, erasoan indartua. (Liburuaren eskintzatik).

Larrazabaleko ziña izan zanetik 74'garren urtean eta Euzko-Alderdi Jeltzalearen baimenagaz argitaratzen da liburu au.

BIOGRAFIA DE ARANA-GOIRI TAR SABIN E HISTORIA GRAFICA DEL NACIONALISMO

Idazlea: Xemein'dar Zeferino

Zarautz'en, 1977'an, eta 1935'en Bilbo'n cgindekoaren antzekoa.

24 x 19 zm. 472 orrialde ta 300 irudi.

Narruzko azalagaz.

Salneurria: **2.500 pezeta.**

 **KIRIKIÑO**
EUSKAL KUTXA
Colon de Larreategui, 11
4241174 Urrut.
BILBAO - I


Ordain-ordez eta gaztu barik bialdu egidazuz ale BIOGRAFIA DE
ARANA-GOIRI TAR SABIN liburuarenak, salneurria 2.500 pezeta dala.

Izena

Zuzenbidea

ZAR

Colón de Larretégui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS 
MUNICIPAL DE BILBAO

ONDO ERANTZUTEN DAU